# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2346

*12/2014 EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 9koa, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko zuzendari kudeatzailearena, kontratazio-organoa den aldetik, segurtasun eta zaintzako zerbitzuak kontratatzeko eskumenak Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari kudeatzaileari eskuordetzan emateko dena.*

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 13.1 artikuluan dioenez:

«Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira». Horri jarraikiz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko segurtasun eta zaintzako zerbitzuak kontratatzeko eskumenak Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari kudeatzaileari eskuordetzan ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honen edukia Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Galdakao, 2014ko maiatzaren 9a.

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko zuzendari kudeatzailea,
ROBERTO IBARRETXE ALTUBE.